



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Eusko Legebiltzarraren Eratze-Bilkura
Bakartxo Tejeria

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 3a





Hamabigarren legegintzaldia hasi dugu Eusko Legebiltzarrean, euskal herri-subiranotasuna bere baitan duen erakundean. Gure eserlekuaz jabetu garen guztiok gure gain hartzen dugu erantzukizun besteren ezin hori. Erantzukizun indibiduala eta partekatua aldi berean. Ordezkatzen ditugun guztien beharrei eta asmoei erantzuteko betebeharra baitugu.

Eta erantzukizun eta ohore hori gure gain hartzen dugu egoera jakin batean. Covid-19aren ondorio larriei aurre egin behar diogun unean. Pandemiak lehenaldia eta geroaldia suposatu du. Milaka biktima utzi ditu. Horiei guztiei nire maitasuna, elkartasuna eta oroitzapena helarazi nahi dizkiet. Pandemiak krisi ekonomiko latza ere eragin du. Guztion artean gainditu beharko dugun krisia.

Hori izan behar du gure lehentasuna une honetan: behar diren neurriak hartzea ekonomia suspertzeko, enplegua sortzeko, eta pertsona ahulenei artatzea. Herri honetan bizi diren guztiek aurrera egin ahal izango dutela bermatu behar dugu. Krisi hau baldintza duinetan gainditzeko gai garen heinean, herri gisa indartuta aterako gara.

Denon artean egin behar dugu aurrera. Lankidetzaz ezinbestekoa da. Legegintzaldi honek akordio zabalak eskatuko ditu. Inoiz baino gehiago. Erakunde arteko akordioak eta eragile politiko eta sozial guztien arteko akordioak. Eta espero dut gu guztiok elkarlanean arituko garela herri hau aurrera ateratzeko eta indartuta ateratzeko.

Ez gara hutsetik abiatzen. Herri sendoa gara, herri solidarioa, eta erakutsi dugu oztupoak eta ezbeharrak gainditzeko gai garela. Aurrekoetan egin izan dugu, eta berriro egingo dugu.

Aurten 40 urte bete dira lehenengo Eusko Legebiltzarra eratu zenetik. Pandemiak urteurrena nahi bezala ospatzea eragotzi digun arren, oso presente daukagu une hura. Diktaduratik atera eta dena egiteke zegoen: askatasun-sistema bat finkatu behar zen, eta desitxuratua, ekonomikoki hondatua eta ez kulturalki, ez ekonomikoki, ez industrialki, ez politikoki garatzeko gaitasunik gabe zegoen herria egituratu behar genuen.





1980ko martxoaren 31n eserlekua hartu zuten 60 legebiltzarkide haiek erronka handia izan zuten eskuartean. Eta erabakitaz, ilusioz eta beldurrik gabe aurre egin zioten. Herri honen alde lan egiteko gogoz ekin zioten. Eta lortu zuten. Euskadi altxatu zuten, herria berreraiki zuten.

Uneak eta zirkunstantziak ezberdinak dira, baina belaunaldi horren eta arestikoen adibidea erreferente izan behar du guretzat. Haiek egindakoari esker, egungo krisiari egoera hobean aurre egin diezaiokegu. Dugun autogobernuari esker, eredu ekonomiko eta ongizate-sistema propioa finkatu ahal izan ditugu.

Hala ere, Gernikako Estatutua onartu eta lau hamarkadatarra oraindik osatu gabea da eta gure autogobernua eguneratu beharra dugu. Eta eguneratu egin behar dugu, euskal herritarren eskubide politiko, ekonomiko, sozial, linguistiko eta kulturalak bermatzeko. Eta eskubide horiek guztiak bermatuta egon daitezzen, Estatuarekiko harreman-eredu berri bat ezinbestekoa da, berdintasunean, aldeberatasunean eta paktuan oinarritua. Euskaldunok erabakitzen duguna errespetatua izatea zor du. Azken bi legegintzaldietan, Eusko Legebiltzarra eguneratze horretan lanean aritu da. Orain, hori burutzeko unea iritsi da.

Erronka asko ditugu aurrean. Eta horregatik ere, guztion erabakitaz, ilusio, adore, lanari eta lankidetzari heldu nahi diot. Gure aurrekoei eta etorriko direnei zor baitiegu.

Amaitu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiet aurreko legealdiko legebiltzarkideei, bereziki, nirekin batera Mahaia osatu duten kideei, Eba, Txarli, Cristina eta Iñigori. Eskerrak guztioi, zuen laguntasuna eta ulermenagatik. Eta ongi etorria legebiltzarkide guztioi eta, batik bat, berriei.

Eskerrak eman nahi dizkiot, halaber, nire alderdiari nigan berriz ere konfiantza izateagatik; etxe honetako langileei urte hauetan eskaini didaten laguntzagatik; eta nire legebiltzar-taldeari etengabeko lankidetzagatik. Eta eskerrak, jakina, familiari: gurasoei, seme-alabei eta zuri, Joanes, beti nire ondoan izateagatik.





Iniciamos la décimo segunda legislatura en el Parlamento Vasco, el legítimo depositario de la soberanía popular vasca. Todas y todos los que hoy hemos tomado posesión de nuestro escaño asumimos una responsabilidad intransferible. Una responsabilidad individual y compartida al mismo tiempo. Tenemos el deber de dar respuesta a las necesidades y los anhelos de todas y todos a las y los que representamos.

Y asumimos esa responsabilidad y ese honor en unas circunstancias muy concretas. En un momento en el que tenemos que hacer frente a las graves consecuencias del Covid-19. La pandemia ha supuesto un antes y un después. Ha dejado miles de víctimas. A todas ellas, a sus familiares y allegados les traslado mi cariño, solidaridad y recuerdo. La pandemia también ha provocado una grave crisis económica. Una crisis que, entre todas y todos, tendremos que superar.

Esa es nuestra prioridad en estos momentos: adoptar las medidas necesarias para reactivar la economía y generar empleo, y atender a las personas más vulnerables. Tenemos que garantizar que todas y todos los que viven en este país salgan adelante. En la medida en que seamos capaces de lograr que todo el mundo pueda superar esta crisis en unas condiciones dignas, saldremos fortalecidos como pueblo.

Y lo tenemos que hacer entre todas y todos. La colaboración resulta indispensable. Esta legislatura va a exigir acuerdos amplios. Más que nunca. Acuerdos interinstitucionales y acuerdos entre todos los agentes políticos y sociales. Y confío en que todas y todos nosotros colaboraremos con el objetivo común de que este país salga adelante y salga fortalecido.

No partimos de cero. Somos un pueblo fuerte, un pueblo solidario, que ha demostrado que es capaz de superar obstáculos y adversidades. Lo hemos hecho en el pasado y volveremos a hacerlo.

Este año se cumple el 40 aniversario de la constitución del primer Parlamento Vasco. Y, aunque la pandemia nos ha impedido celebrarlo como habríamos deseado, lo tenemos muy presente. Salíamos de la dictadura y todo estaba por construir: había que consolidar un sistema de libertades, y necesitábamos estructurar un país que estaba desvertebrado, arruinado económicamente y sin capacidad alguna de desarrollo, ni cultural, ni económico, ni industrial, ni político.





Las y los 60 parlamentarios que tomaron posesión del escaño aquel 31 de marzo de 1980 se enfrentaban a un gran reto. Y lo asumieron con determinación, con ilusión y sin miedo. Y con ganas de trabajar por este país, por este pueblo. Y lo consiguieron. Reconstruyeron Euskadi.

Los momentos y las circunstancias son diferentes pero el ejemplo de toda aquella generación y de las anteriores son un referente. Gracias a lo que ellas y ellos hicieron podemos afrontar la actual crisis en mejores condiciones. Tenemos un autogobierno que nos ha permitido consolidar un modelo económico y un sistema de bienestar propios.

Cuatro décadas después de la aprobación del Estatuto de Gernika -todavía sin completar-, necesitamos actualizar nuestro autogobierno. Necesitamos actualizarlo para garantizar los derechos políticos, económicos, sociales, lingüísticos y culturales de la ciudadanía vasca. Y para que todos esos derechos estén garantizados, resulta imprescindible un nuevo modelo de relación con el Estado, basado en la igualdad, la bilateralidad y el pacto. Necesitamos que se respete lo que las vascas y los vascos decidamos. Durante las dos últimas legislaturas, el Parlamento Vasco ha estado trabajando en esa actualización. Ahora, ha llegado el momento de culminarla.

Son muchos los retos que tenemos por delante. Y por ello, apelo a la determinación, la ilusión, el valor, el trabajo y la colaboración de todas y todos. Se lo debemos a los que nos precedieron y a los que vendrán.

Antes de concluir quiero dar las gracias a cada una y cada uno de las y los parlamentarios de la anterior legislatura y, de manera especial, a mis compañeras y compañeros en la Mesa: Eba, Txarli, Iñigo y Cristina. Gracias a todas y todos por vuestra colaboración y comprensión. Y doy la bienvenida a todas y todos los parlamentarios, particularmente, a las y los nuevos.

También quiero agradecer a mi partido la confianza depositada en mí; a las y los trabajadores de esta casa, por su gran ayuda durante estos años; y a mi grupo parlamentario, por su apoyo constante. Y, por supuesto, a mi familia: a mis padres, a mis hijas e hijos y a ti, Joannes, por estar siempre a mi lado.

